

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

#### Laudioko udalerrian 2024ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Laudioko udalerrian 2024ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jarzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2025eko otsailaren 24tik apirilaren 24ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025eko otsailaren 24an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2025eko apirilaren 24tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekareru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorri buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko urtarrilaren 8a

*Presidentea*

*JULEN IBARROLA GOBANTES*